

NAZIOARTEKO ERAKUSKETA: “Bakea josiz. Gatazka, Arpillerak, Memoria”

Aiete Kultur Etxean giza eskubideen urraketak erakusteko eta salatzeke mundu osoko emakumeek jositako ehunezko piezen (arpillerak) bilduma ikus daiteke.

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Sailak eta Donostia Kulturak antolatutako Giza Eskubideen XIV. Zinemaldiarekin batera prestatutako jardueren artean, Aiete Kultur Etxean “Bakea josiz. Gatazka, Arpillerak, Memoria” erakusketa zabalik egongo da apirilaren 14tik ekainaren 12ra.



Erakusketan 32 arpillera –ehunezko pieza tridimentsionalak– ikus daitezke. Halako piezak Txilen egiten hasi ziren. Bertan, Pinocheten estatu-kolpearen ondoren, senitartekoak galdu zituzten emakume-taldeek teknika honetan aurkitu zuten emozionalki eta ekonomikoki bizirik irauteko eta, aldi berean, giza eskubideen urraketa salatzeke modu bat. Horretarako, haria, orratzak eta oihal zatiak bezalako etxean zuten materiala erabili zuten, euren bizipenak iztupa-ehun baten gainean josteko. Arpillera horietako asko desagertutako pertsonen arropen oihalekin egiten ziren, haiek omentzeko eta euren memoria bizirik edukitzen saiatzeko.

Beranduago, salatzeke eta aldarrikatzeko modu hau mundu osoko beste herrialde batzuetara zabaldu zen. Sentimenduak eta sufrimenduak adierazteko, pertsona askoren esku zegoen modu grafikoa eta eskuragarria zen. Beraz, justizia eskatzen duten, eta puntaden bidez eskubideen urraketak, behartutako desagertzeak, espetxeratzeak edo gatazka-testuingurutan eguneroko bizitza kontatzen duten “jositako ahotsak” dira arpillerak.

Donostian erakusten diren piezen artean Txile, Ipar Irlanda, Espainia, Ingalaterra, Argentina, Kolonbia, Peru eta Zimbabwe bezalako herrialdetan egindako obrak ikus daitezke.

Egia eta Adiskidetze Batzordearen ondorengo Txileko Erreparazioko eta Adiskidetzeko Korporazio Nazionaleko kide den Roberta Bacic Erakusketaren komisario txiletarra mundu osoan barrena ibili da artelan hauen bilduma berezia osatzeko. Bacicek bisitaldi gidatuak eskainiko ditu apirilaren 13an eta 14an Donostiara hurbiltzean. Gainera, euren esperientziak “josiko dituzten” migratzaileekin Arpillerak egiteko tailerra burutuko du.

Erakusketa koloretsu hau Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Sailaren, Gernikako Bakearen Museoaren eta La Encartada Fabrika Museoaren arteko lankidetzaren emaitza da. Gainera, Donostia 2016 “Itsasoratze aktibista” proiektuaren barruan burutzen ari den jardueren barne dago. Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesa dauka.

Erakusketaren inaugurazioan egon dira Juan Ramón Viles Gardentasuneko, Giza Baliabideetako eta Berrikuntzako zinegotzi ordezkaria, Roberta Bacic erakusketako komisarioa, Roser Corbera arpillerista eta Fundació Ateneu San Roc (Badalona) fundazioaren komunikazio-arduraduna, Iratxe Momoitio Gernikako Bakearen Museoaren

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

**GIZA ESKUBIDEEN
ZINEMALDIA**
**FESTIVAL DE CINE
Y DERECHOS HUMANOS**
HUMAN RIGHTS
FILM FESTIVAL

www.zinemaetagizaeskubideak.com / www.cineyderechoshumanos.com

zuzendaria eta Arrate Velasco Donostia 2016ko Bakearen Itsasargiaren ordezkaria.

2008tik nazioartean egindako ibilbidean, “*Arpillerak*” museotan, unibertsitatetan, arte-galeriatan, enbaxadatan eta gune komunitariotan erakutsi dira mundu osoan.



donostiakultura.com



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Giza Eskubideak
Derechos Humanos



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPEAN CAPITAL OF CULTURE
DSS2016.EU